

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



IRIONDO SENDIA

EUSKAL PILOTARIAK TIANJINEN, 1935. URTEAREN IRITSIERA OSPATZEN

1929ko otsailean Shanghaiko pilotalekua zabaldu zen, Hai Alai Auditorium izenarekin. 3.000 lagunentzako edukiera zuen eta bertako pilotarien artean, besteak beste, Sotolongo, Urizar, Berrondo, Prudencio, Urbietta, Solozabal, Argoitia, Ramos eta Careaga euskaldunak zeuden. 1932an Jose Garate batu zitzairen. Garatek euskal pilotako urrezko domina irabazi zuen 1924ko Olinpiar Jokoen, Parisen. 1934ko irailean S.A.I. Forum Hai Alai izeneko pilotalekua inauguratu zuten Tianjin hirian, Gumagalli enpresari italiarrak eraikitakoa. Haren diseinua italiar jatorriko Bonetti eta Suitzako Kessler arkitektoek egin zuten, eta itsasargi itxurako dorre ikusgarria zuen. Iraultza iristean, eraikina birmoldatu egin zuten Herriko Antzoki Handia izateko. 1935eko argazkian euskal pilotariak ageri dira Tianjingo Forum Hai Alai pilotalekuko jatetxean, senide eta lagunekin urte berriaren iritsiera ospatzen.